



DURANGO SARIAK 2022

OINARRIAK

Lehena

Kulturan zein kirol arloan, Durangoko eta/edo Durangon lan egin duten pertsona fisiko eta juridikoen lana aitortzeko, egiten da DURANGO SARIAK sarien deialdia, hirugarren oinarrian zerrendatutako kategorietan.

Bigarrena

Sariak ohorezkoak baino ez dira, eta ez dute ekarpen ekonomikorik. Egindako lanaren aintzatespen publikoa egingo da eta Durangon egingo den ekitaldian dagokion saria emango da.

Hirugarrena

DURANGO SARIAK, urtean zehar honako kategoria hauetan lortutako merezimenduak aitortzera zuzenduta daude:

- Durangoko kirol elkarteak
- Durangar kirolaria
- Durangar kirolari edo elkarteak.
Hautaketa herrikoira
- Durangoko kultur elkarteak.
- Kultur arloan persona esanguratsua
- Kultur arloan persona edo elkarte
esanguratsua. Hautaketa herrikoia.
- Sari berezia.

Laugarrena

Aukeratzeko modua honako hau izango da:

1. Edozein pertsonak edo erakundek aurkeztu ahal izango ditu hautagai-zerrenda bat edo batzuk idatziz. Horretarako eskaera Durangoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan erregistratu beharko du edo egoitza elektronikoaren bitartez.
2. Hautagaitza aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Agiri Ofizialean publikatu eta hurrengo egunean hasiko da, 2022ko ekainaren 30era arte.
3. Proposamenarekin batera, saria merezi duela onartzeko merezimenduak aurkeztu beharko dira. Merezimendurik gabe jasotzen diren proposamenak ez dira aintzat hartuko.
4. Aintzatespena merezi duten pertsonak edo erakundeak kanpoan gera ez daitezen, epaimahaiak bere hautagaiak proposatu ahal izango ditu, dagozkien merezimenduekin.
5. Horretarako izendatutako epaimahaiak epe barruan aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu eta saria merezi duten hautagaiak erabakiko ditu. Gehienez 20 puntu emango ditu, irizpide hauen arabera:
 - Kultur edo kirol-ibilbidea: 8 puntu, gehienez ere.
 - Durangoko kultura, gizarte edo kirol bizitzan inplikazioa: 6 puntu, gehienez ere.
 - Proiektzioa Durangotik kanpo: 6 puntu, gehienez ere.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



6. Herri-bozketa bidez aukeratuko dira

- Kirol-arloan nabarmendu den pertsona edo erakundea.
- Kulturaren arloan nabarmendu den pertsona edo erakundea.

Bi sari horiek partehartu.durango.eus webgunearen bidez aukeratuko dira. Bozkatzeko epea irailaren 1etik 30era izango da.

Bosgarrena

Honako hauek osatuko dute DURANGO SARIAK emateko epaimahaia:

- Presidentea: Julián Ríos Santiago. Durangoko Udaleko herrigintza saileko presidentea.
 - Epaimahaikideak:
 - o Juan Antonio Bueno Moreno. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
 - o Arantza Arrazola Beaskoetxea. San Agustin Kultur Guneko arduraduna.
 - o Asier Bikandi Elorriaga. Durangoko Udaleko erakunde autonomoen gerentea.
 - Idazkaria: Ander Alvarez Ortiz Durangoko Udaleko kirol eta kultura teknikaria.
2. Epaimahaiak gehiengo soilez erabakiko ditu DURANGO SARIAK. Berdinketa gertatuz gero, presidente kargua duen botoak erabakiko du.
3. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.
4. Durangoko Udalak irabazleak iragarriko ditu Udaleko web orrialdean eta Udaleko iragarki taulan.

Seigarrena

Oinarriak eta eskaera orria Durangoko Udaleko web orrialdean (www.durango.eus) egongo dira eskuragarri.

Zazpigarrena

Sariak emateko ekitaldia azaroan zehar egingo da, urtero zehaztuko den egunean.